

HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/01/14

BILERA ZENBAKIA: 1

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 9 emakumezko eta 4 gizonezko.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Herri Bizitza lan taldearen egitasmo eta bete beharren hausnarketa.


Iazko balantzea eginez, - Herri Batzarrean ere agertu zen – Herri Bizitzako lan taldeak bilera asko eman zituen Herriko Jaiak antolatzen. Hori azterturik, Herri Bizitza lan taldeak kanpo, JAI BATZORDE Taldea sortzea erabakitzen da, hori bai, Herri Bizitza lan taldeak bultzatuta, herriko talde eragile gehienak bertan biltzen garelako.

Aldi berean, erabakitzen da, Herri Bizitzako bilera bat hartzea jaiari buruz hitzegiteko, hau da, jaien ereduaz erreflexionatu, e.a.

Ondoren 2015 urteari begira honako antolaketa hau onartu zen:

- OTSAILA: Euskararen erabilera Itsasondon, Korrika.
- MARTXOA: Herriko Jaien hausnarketarako, eredu, erreflexioa.
- APIRILA: Haurrentzat Uda Kanpainari buruz, ideiak, beharrezkoa den?
- MAIATZA: Aurrekontuak aztertu, erabaki.
- EKAINA: Hezkuntza, matrikulazioa kanpaina, eredu.
- UZTAILA: Gaztelekuaren funtzionamendua, antolaketa.
- IRAILA: Jubilatutako Elkartearen erabilpena, mugimendua.
- URRIA eta AZAROA, libre uzten ditugu, urtean zehar sor litezkeen beharrak aztertzeko.

Ondoren, eztabaidatu zen, bilera bakoitzeko azken 10-15 minutuak



kultur ekintzei buruz hitzegiteko uztea, egindako ekintzak baloratu, egiteko direnei buruzko informazioa jaso, e.a.

Bilera bakoitza ongi antolatzeko, arduradun bakoitzak, aurretik informazioa pasako digu taldekide guztiei, hitz egin beharreko gaii buruzko hausnarketa bat egin ahal izateko guztiok bilera aurretik.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
<p>Hurrengo bilera, Otsailean egingo dugu. Gai ordena:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Euskararen erabilera Itsasondon. 2. Kultur ekintzei buruzko informazioa. 		